



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PERKUSIOA 2023-03-29

Nori zuzenduak?

Graduko Perkusio interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzenduak.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko martxoaren 22an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Perkusio interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrG2>

Jardunaldiaren egitura

**ALONSO, Javier; DOMINGO, Antonio;
FERRÁNDIZ, Lorenzo eta AZANZA, Javier**

11:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo da.

12:00-13:00 Javier Azanzak tinbal eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

13:00-14:00 Lorenzo Ferrnándizek marinba eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

14:00-15:00 Bazkaltzeko atsedenaldea, gure ikasleek parte-hartzaileekin esperientzia partekatzeko aukera emango duena

15:00-16:00 Antonio Domingok bibrafono eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

16:00-17:30 Jabi Alonsok kutxa eta multtiperkusio eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

17:45 Musikeneko Perkusio Ensemblearen kontzertua

19:00 Jardunaldiaren amaiera.

Perkusio jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net